

Ezpata ez zen Damoklesena

SIRAKUSA (SIZILIA), K.A. 405. Dionisio I.ak –edo Dionisio Zaharrak– greziar koloniaren boterea lortu zuen eta Sirakusako tirano bihurtu zen. Orduz geroztik, etsaiak ez zituen faltan izango etxe barruan nahiz kanpoan.

Dionisioren gortean Damokles izeneko gizon bat bizi omen zen, bere jaunarekiko inbidiak janda. “Haren tokian banengo... Haren boterea banu... Haren ondasunen jabe banintz... Dionisio banintz...”, errepikatzen omen zuen etengabe jauregiko korridoretan. Egun batez, Dionisiok berak kortesanoaren bekaitzaren berri izan zuen, eta Damoklesi beregana joateko agindu zion. “Kanpora joan behar dut eta bitartean nire postua utziko dizut”, esan omen zion; “hala, nire lanak egin beharoko dituzu eta agintzea zein gogorra den ikusiko duzu”. Orduan, tronuaren gainean hari fin bat zintzilikatuarazi zuen, eta hariari lotuta, espata biluzia. Damokles tronuaren esertzera behartu zuen, buru gainean ezpataren punta zorrotza dilindan zuela. “Ikusten duzu espata? Giroan aldaketarik txikiena izanda ere, zure gainera eroriko da”. Agintearen arriskuak erakutsi nahi izan zizkion ezpataren bidez, bekaizkeriaz, konspirazioz eta losintxari faltsuez inguratuta egoteak zekarrena. Damokles, izuak jota, jaunaren oinetan belaunikatu omen zen, barkamen eske.

Ez dakigu kondaira noraino den egiazkoa, baina Dionisioren erregealdiaren metafora gisa bete-betean asmatu zuen. Damoklesek une batzuk besterik ez zituen egin Dionisioren ezpataren azpian, baina tiranoak, K.a. 367 arte, urteak eman zituen orotariko etsaien jomugan.

Kartagotarren aurka hainbatetan borrokatu zen, eta garaipen handiak lortu zituen, uhartetik erabat egozteko lortu ez arren. Rhegium hartu zuen, eta Sirakusaren boterea Adriatikokoan hedatu. Epiro konkistatu eta erraustu zuen –15.000 molosiar hil zituen–... Menpeko lurraldeak eta aldeko mertzenarioak ugaritu ahala, arierio kopurua handituz joan zen atzerrian. Sirakusan ere etsai mordoa zuen; haren autokraziak polisaren demo-



ACKLAND MUSEUM

Damoklesen espata (Richard Westfall, 1812) margolanean Dionisio I.a Sirakusakoa zutik ageri da, besoak zabalik, azpian Damokles duela.

kraziaren gainbehera eragin zuen, eta boterea galdu zuten aristokratik, agintaldiaren hasieratik ibili ziren tiranoaren aurkako azpijokoetan. K.a. 367an hil zen, oturuntza batean, hainbat ustez bere seme eta oinordeko Dionisio Gaztearen aginduz pozoituta. Damokles gainean zintzilikatutako ezpataren haria, azkenean, tiranoa azpian zuela eten zen. ■

Arrastoak

Stonehengeren 90 “bizilagunak”

LUDWIG WOITZMANN INSTITUTE



STONEHENGE ezagunetik hiru kilometro eskasera, Durrington Walls aztarnategian, beste monumentu megalitiko bat aurkitu dute, aldameneko harri multzoaren garai bertsukoa, K.a. 4000. urte ingurukoa. 90 harri inguruk osatuta dago, lerro zuzenean jarrita daude –ez zirkuluan, Stonehengekoak bezala– eta bakoitza 4,5 metro inguru da garai; multzo ikusgarria, ikusteko

moduan balego. Izan ere, arrokkak lur azpian daude eta radar bidez aurkitu dituzte.

Beraz, oraingoz, simulazio digitalen bidez soilik ikus daiteke (irudian). Eta aurkikuntzari buruzko informazio gehiago jakiteko ere zain egon beharoko dugu, oraindik ez baitakite guneak zer funtzio zuen eta nolako lotura zeukan Stonehengerekin. ■